

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**165/2026 Foru Agindua, martxoaren 24koa. Natura Ingurunearen Zuzendaritzako Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1057.001) izendapen askearen bidez betetzeko deialdiaren ebazpena**

Azaroaren 12ko 478/2025 Foru Aginduaren bidez, Natura Ingurunearen Zuzendaritzako Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1057.001) izendapen askez betetzeko deialdia egin zen.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, eta deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera, otsailaren 5eko 72/2026 Foru Aginduaren bidez izendatutako organo teknikoak lehen diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari helarazi zizkion aurkeztutako hautagaitzen artean lanpostua betetzeko egokitasuna eta gaitasun profesionala egiaztatzen zuten 5 hautagaitzak.

Ondoren, 2026ko otsailaren 27an, Ekonomiaren Garapen eta Jasangarritasun Sailak, espedientean jasota dagoen Natura Ingurunearen Zuzendaritzaren txosten arrazoituan, Ignacio Ruiz González proposatu zuen, Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuko buruaren lanpostua betetzeko.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritz

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ignacio Ruiz González izendatzea Natura Ingurunearen Zuzendaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuko buru (kodea: 1057.001).

Bigarrena. Foru agindu honek 2026ko apirilaren 13tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru Agindu honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean. Hori guztia, honako hauetan jasotakoarekin bat etorritz: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 24a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,  
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**